

## **Getxon, 2005eko azaroaren 22an**

### **Iñaki Zarraoa alkateari:**

Idazki honekin batera “Laborables de 7 a 21 h. Excepto Correos” leloko errotulua bidaltzen dizugu. Euskal Herrian Euskaraz erakundeak 1998an, 1999an eta 2000. urtean ezabatu zuen aipatu plaka. 2001ean publikoki salatu genuen Europako Hizkuntz Gutxituen Egunaren harira eta hurrengo urtean zuzenean zuregana jo genuen salaketa berresteko. 2002ko apirilaren 24an horrela erantzun zenion errotulu hori ahal bezain laster ordezkatzeko gure eskariari:

“De 8 a 20 h. Excepto carga y descarga” eta “Laborables de 7 a 21 h. Excepto Correos” bide seinaleak eskatuta daude eta berehala aldatuko dira.

Lehenengoarekin gertatu ez bezala, eskatutako bigarren bide-seinalea inoiz ez omen zen ailegatu udaletxera. Horregatik eta behar diren tramitazioak arintzeko, azkenean erarik eraginkorra aipatu errotulua kentzea dela erabaki dugu.

Bestalde, hau ez da euskararen arrastorik ez duen errotulu, plaka edo bide-seinale bakarra udalerrian eta nahi izanez gero pozik bidaliko dizugu horrelakoen zerrenda bat.

Era berean, badira bi arlo oraindik jorratzeke daudenak: errotulu diglosiko zein elebidunen aldaketa eta horiek islatzen duten kale-izendegiaren euskaratzea. Egiteko horiek aurrera eramateko ezinbestekoa zen toponimiari buruzko ikerketa 2004an argitaratutako “Getxoko leku izenak” liburuaren bidez eta berriki kaleratu den horren CDaren bitartez eginda eta gizarteratze prozesuan dagoelakoan gaude. Hortaz, dagoeneko ez dago oztoporik (Euskaltzaindia erakundeari egin dakizkiokeen kontsultak aparte utzita) kale-izendegia zein errotulazioa euskaratzeko.

Gainera, gogoratzen dizugu bai 2002ko Getxoko Euskara Planak, bai 2003-2006 Getxoko EBPnk ere zehazten dutela goian eskatzen dizuguna.

Besterik gabe, laster hizkuntza paisaia euskalduntzeko ekimenak burutzera berriro animatuz agurtzen zaitugu,

### **ITZUBALTZETAKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ**

Itzubaltzeta gaztetxea, Errekagane 1-5, behea.

48930 ITZUBALTZETA

itzubaltzetakoehe@euskalerrria.org